



## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XVI. edizioa irailaren 29an hasiko da eta abenduaren 15ean amaitu. Bertsozale Elkarteak antolatzen duen zortzigarren txapelketa da honakoa.

14 saiok osatuko dute 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Amasa-Villabonan abiatuko da eta hirugarren aldiz Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n jokatu da finala.

43 bertsolari izango ditu aurtengo edizioak. Horiekin batera, 14 lagunek osatzen dute gai-jartzaile taldea eta 16 izango dira epaile lanetan arituko direnak.

Lau urtetik behin jokatzen den Bertsolari Txapelketa Nagusiak oihartzun zabala izaten du. Hala ere, hori bezain inportantea da zurrunbilo horren azpian dagoena zer den begibistatik ez galtzea.

Azken finean, bertsoa da bertsolaritzaren oinarria, hori da Txapelketaren sekretua. Egunez egun bertsoa herriz herri, plazaz plaza, eskolaz eskola ibiltzen da Euskal Herriko bazter guztietan. Mugimendu zabala eta dinamikoa da bertsolaritzarena, jende asko dago lan horretan inplikaturik. Eta Txapelketa Nagusia etengabeko jarduera horren isla da.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## EZAUGARRI NAGUSIAK

### Parte-hartzea

43 bertsolarik hartuko dute parte: 2 Arabatik, 11 Bizkaitik, 21 Gipuzkoatik, 4 Nafarroatik eta 5 Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberotatik.

2009eko Txapelketa Nagusiko finalistek eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatuek dute Txapelketa Nagusia parte hartzeko eskubidea. Andoni Egañak uko egin dio parte-hartzeari, eta aurrekoan finalean aritu zenez, ez da inor sartu haren ordez. Iñigo Izagirrek ere uko egin dio, eta Iñaki Zelaiak ordezkatu du.

### Babesleak

Bizkaiko Foru Aldundia da finaleko babesleak. Horrekin batera, Getariako Txakolina, Eusko Label Sagardoa, Hazi-Goi Mailako elikagaiak eta Ampo dira 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko babesleak. Horiez gain, Txapelketako saioak hartzen dituzten udalek ere ezinbesteko laguntza eman dute herri bakoitzeko saioa antolatzen.

### Txapelketa interneten

Elkarren osagarriak diren bi webgune ditu aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak.

[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com): 2012ko amaieran berri zen Bertsozale Elkartearen webgunea eta bertan Txapelketa Nagusiak azpialdi berezia du. Txapelketari dagokion informazio osoa izando da bertan: parte-hartzaileei buruzko datuak, sailkapenak, albisteak, saioetako laburpenak...

[www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com): Bertsolaritzaren interneteko telebista da, Bertsozale Elkarteak eta Librean kooperatibak elkarlanean egiten duten ataria. Txapelketa Nagusiak bere gunea izango du [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)-en barruan: saio guztietan bildutako hainbat bertsoaldi, zuzeneko emanaldiak, parte-hartzaileei egindako elkarriketak, eta kulturagintzako eta adituen asteroko gogoetak eta iritzi artikulak.

Horrez gain, Bertsolari Txapelketa Nagusia sare sozialen bitartez ere segitzen ahalko da, facebook eta twitterren. Azken honetan #btn13 traola erabiliko dugu Txapelketaren berri emateko.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## **'Hitzetik Hortzera', igandero eta astelehenero**

EITB-k eta Bertsozale Elkartek elkarlanean egiten dugun telebistako saio beteranoak ahalegin berezia egingo du Txapelketan gertatutako guztiaren berri emateko. Abendu bitartean, Txapelketari eskainitako saio monografikoak izango dira. Igandero arratsaldeko 15:00etan eta astelehenetan 23:15ean, asteburuan gertatu denari jarraipen zabala eskainiko dio Hitzetik Hortzerak.

## **Sintonia**

Igelaren Banda taldeak egin du 2013ko Bertsolari Txapelketako sintonia. Jazz kutsuko kantu instrumentala da, herri-musika eta doinu garaikideak uztartzen dituena. Bixente Martinez, Amair Cajaraville eta Hasier Oleaga musikari eskarmentudunek osatzen dute taldea.

## **Ikerlarien ekarpenak**

Bertsolaritza Ikertzen ari den ikerlari talde zabal batek Txapelketa Nagusira bideratutako gogoetak burutuko ditu, Txapelketaren inguruko lan espezifikoak dira [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) web gunean argitaratzen joango direnak. 14 dira ikerlariak eta horien artean unibertsitateko irakasleak, antropologoak, kazetariak eta musikariak daude, besteak beste. Txapelketan zehar emango ditugu argibide gehiago.

Horrez gain, atzerriko inprobisatzaileen eta ikerlarien bisita espero dugu txapelketaren amaiera aldera. Zehaztu bezain pronto emango ditugu honi buruzko xehetasunak.

## **Euskalduntzearekin elkarlana**

Euskaltegietakako ikasleak Txapelketako saioak ikustera animatu asmoz Txapelketako saioak jarraitzeko ikastaro didaktikoak eskainiko zaizkie. Horretarako, Bertsozale Elkarteak honako euskalduntze erakunde eta euskaltegiekin ari da elkarlanean: AEK erakundea eta euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, IKA euskaltegiak, Bilboko Zenbat Gara Elkarteak, Lazkaoko Maizpide euskaltegia eta beste hainbat euskaltegi.



Bertsozale Elkarteak. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## Txapeldunak Txapelketaren historian

Urtea	Lekua	Txapelduna
1935	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1936	Donostia	Manuel Lujanbio "Txirrita"
1960	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1962	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1965	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1967	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1980	Donostia	Xabier Amuriza
1982	Donostia	Xabier Amuriza
1986	Donostia	Sebastian Lizaso
1989	Donostia	Jon Lopategi
1993	Donostia	Andoni Egaña
1997	Donostia	Andoni Egaña
2001	Donostia	Andoni Egaña
2005	Barakaldo	Andoni Egaña
2009	Barakaldo	Maialen Lujanbio



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea, Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## PARTE-HARTZAILEAK

### BERTSOLARIAK



**Agin Laburu Rezola** (Astigarraga, 1985)

Kazetaria da eta hainbat hedabidetan aritu da lanean. Sagardotegiko semea izanik, han aritzen da lanean. Aitak bultzatuta egin zen bertsozale, eta Hernaniko Bertso Eskolan dramatza urte asko. Lehen aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo** (Elgeta, 1978)

Euskal Filologian eta Alemaniar Filologian lizentziatua da. Gaur egun helduen euskara irakaslea da. Hainbat bertso-eskolatan aritu izan da irakasle. Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza arduraduna izan da. Hirugarren aldiz parte hartuko du Txapelketan Nagusian.



**Aitor Mendiluze Gonzalez** (Andoain, 1975)

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko bertsolaritza irakaslea da. Hernaniko eta Andoaingo bertso-eskoletan aritua da. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Bosgarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Aitor Sarriegi Galparsoro** (Beasain, 1976)

Informatika Ingeniaritza ikasia da, IKT dinamizatzalea eta irakaslea da. Goieriko Bertso Eskolako kidea da. Lizardi eta Osinalde sariak irabazi ditu. Egungo Gipuzkoako txapelketa da, 2011ko txapelketa irabazi baitzuen. Bosgarren aldiz arituko da Txapelketa Nagusian.



**Alaia Martin Etxebeste** (Oiartzun, 1987)

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua da eta gidoigintzan lan egin du. 12 urterekin hasi zen bertsoan, etartzun eta Santutxuko bertso-eskoletan ibilitakoa da. 2011ko Gipuzkoako Txapelketan hirugarren egin zuen. Lehenengoz arituko da Txapelketa Nagusian.



**Amaia Agirre Arrastoa** (Amasa-Villabona, 1977)

Euskal Filologian lizentziatua da. Gipuzkoako Bertsozale Elkartean ari da lanean, bertsolaritza irakasle. Xenpelar saria irabazi zuen 1998an. Tolosaldeko Harituz bertso-elkarguneko idazkaria da. Bertsolari Txapelketa Nagusian hirugarren aldia du.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



**Amets Arzallus Antia** (Hendaia, 1983)

Kazetaria da, eta hedabide ugarian kolaboratzen du. Etxean bertso giroa zegoen, eta txikitatik hasi zen kantuan. Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba txapelketa. Laugarrenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Arkaitz Estiballes Ormaetxea** (Galdakao, 1977)

Euskal Filologia ikasi eta irakasle ibilia da ikastetxeetan eta bertso-eskoletan. Galdakaoko Bertso Eskolan hasi zen umetan. Santutxuko Bertso Eskolako kidea da. 2010ean eta 2012an Bizkaiko txapelkun izana da. Laugarren Txapelketa Nagusia du aurtengoa.



**Beñat Gaztelumendi Arandia** (Añorga, 1987)

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi du, eta egun kazetari lanetan aritzen da. Igeldoko, Hernaniko eta Santutxuko bertso-eskoletan ibilia da. Bigarren egin zuen 2007ko eta 2011ko Gipuzkoako Txapelketan. Bigarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Beñat Lizaso Alberdi** (Azpeitia, 1982)

Tornulari moduan egiten du lan. Etxetik datorkio bertsozaletasuna. Ikastolako bertso-eskolan hasi zen trebatzen eta Azpeitiko Bertso Eskolan hasi zen bat-batekoan. 2005ean Zarauzko Lizardi saria irabazi zuen. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Beñat Ugartetxea Ostolaza** (Mallabia, 1979)

Biltegi batean egiten du lan. Mallabian jaioa da, Gereaa auzoan, Barrera baserrian, eta gaur egun Zornotzan bizi da. Bertsoa etxetik jasotakoa da, aita eta anaietako bat ere aritzen baitziren lehenago. Aurten lehenengoz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Eneko Fernandez Maritxalar** (Lesaka, 1977)

Irakaslea da ogibidez. Bertsozalea aspalditik izan arren, 2011. urtean hasi zen Baztango helduen bertso-eskolan. Egun, Bortzirietako Bertso Eskolan ari da. Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehen aldiz parte hartu du aurten. Bertsolari Txapelketa Nagusian ere lehen aldia du.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



**Eneritz Zabaleta Apaolaza** (Baiona, 1984)

Doktoretza tesia prestatzen ari da. Bitartean, kazetari lanetan eta eskolak ematen ere ari da. 11 urte zituela hasi zen bertsoaletzen, eta geroztik, eskolarteko hainbat txapelketatan eta sariketatan parte hartu du. Lehen aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Erika Lagoma Pombar** (Lesaka, 1981)

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko transmisio eragilea da. Gazterik hasi zen Bortzirietako bertso-eskolan. Bitan izan da Nafarroako Eskolarteko txapelkun. Hirugarren egin du aurte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Bigarrenagoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Etxahun Lekue Etxebarria** (Larrabetzu, 1979)

Irakasle ikasketak egin eta bertso-eskoletan eta ikastetxeetan bertsoaritzak eskolak ematen ditu. Etxekoen eraginez bertsoaletu, eta 9-10 urterekin hasi zen bertso-eskolan. Larrabetzuko Itallen bertso-eskolako kidea da. Hirugarren aldia du Txapelketa Nagusian.



**Felix Zubia Olaskoaga** (Zarautz, 1974)

Medikuntza ikasketak egin zituen. Donostia Ospitalean egiten du lan, eta EHUko irakaslea da Medikuntza Fakultatean. Bere kasa ikasi zuen bertsoan. 1998an Zarautzko Motxian bertso-eskolan hasi zen. Lehenengoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Fredi Paia Ruiz** (Algorta, 1981)

Euskal kultura biltzeko eta ikertzeko lanean ari da Labayru ikastegian. Bertsoaritzarekin lotutako ekimen berritzaile askotan parte hartu du. Algortako Bertsolari Eskolaren bitartez iritsi zen bertsoaritzara. Laugarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Iban Urdangarin Lardizabal** (Araun, 1985)

Herri langilea da sorterrian bertan. Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa izana da. 2006ko Osinalde sariketaren irabazlea izan zen. Goierriko bertso-eskolan aritu da. Lehen aldiz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)





**Igor Elortza Aranoa** (Durango, 1975)

Topografia Ingeniaritzako diplomaduna da. Egun, sorkuntza arloari emana bizi da. Zazpi Eskale eta Gu ta Gutarrak proiektuen sortzaileetako bat da. Eskolan hasi zen bertsoan, eta Durangoko Bertso Eskolan jarraitu zuen. Seigarren Txapelketa Nagusia du.



**Iker Zubeldia Katarain** (Zegama, 1981)

Galdaragintzan egiten du lan. Etxetik eta La Salleko fraideetatik datorkio bertsozaletasuna. Goierriko Bertso Eskolan ibilitakoa da. Osinalde saria irabazi zuen 2001. urtean. Hirugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"** (Zarautz, 1977)

Bertsotan 14 urterekin hasi zen. Zarauzko Etxe-Beltz bertso-eskolan hasi zen ikasle gisa. Motxian bertso-eskolako kidea ere bada. Musikan ere aritua da, eta talde batean baino gehiagotan ibili da. Hirugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Iñaki Apalategi Astigarraga** (Beasain, 1982)

Humanitateak-Enpresa ikasita, Goierri aldean bertsolaritza eragilea da, eta lanbidez irakaslea. 15 urterekin hasi zen bertsoan, eta gazte mailako hainbat sari lortu ditu (Osinalde, Xenpelar, Plazatik gaztetxera...). Lehen aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Iñaki Zelaia Irazusta** (Hernani, 1973)

Mekanikari ikasketak egin eta horretan egin izan du lan. Etxean Herri Irratiko bertso-programak entzunez bertsozaletu zen, eta ikastolan egin zituen lehen urratsak. Hernaniko bertso-taldeko kide da. Bost aldiz parte hartu du Txapelketa Nagusian.



**Iratxe Ibarra Foruria** (Markina-Xemein, 1974)

Euskal Filologian lizentziatua da, eta lanbidez, euskara teknikaria. Hamabi urterekin hasi zen bertsolaritzan. Santutxuko Bertso Eskolan jarraitu zuen bertsoa lantzen, eta Markina-Xemeingo Bertso Eskolako kide da orain. Bosgarren aldia du Txapelketa Nagusian.



Bertsosale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)





**Jexux Mari Irazu Muñoa** (Larraul, 1972)

Filosofian lizentziatua da. Azken urteotan bertsolaritza eta ikus-entzunezko komunikazioa uztartu ditu. Bertsoa.com plaza digitalaren sortzailea da. Tolosako eta Hernaniko bertso-eskoletan ibilitakoa da. Txapelketa Nagusian bosgarren aldiz parte hartuko du.



**Jokin Uranga Isuskitza** (Azpeitia, 1980)

Irakalse ikasketak egin eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen ari da bertsolaritza irakasle. Zaletasuna etxean jasota, bertso-eskolan eman zuen izena umetan. Zaharrak Berri Xou proiektuan parte hartu zuen. Bigarren aldiz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Jon Maia Soria** (Urretxu, 1972)

Euskal Filologiako lizentziaduna da, eta gaur egun kultur eragile aritzen da. Bertsoarekin lehen harremana eskolan izan zuen, eta Zumaiako Bertso Eskolan trebatu zen. Seigarren aldia du Txapelketa Nagusian, eta azken lauretan finalera iritsi da.



**Jon Martin Etxebeste** (Oiartzun, 1981)

Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziatua da. Gaur egun Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen ari da lanean, ikastetxeetan bertsolaritza eskolak ematen. Bertsolaritzarekin lotutako hainbat proiektu jarri ditu abian. Hirugarren aldiz kantatuko du Txapelketan.



**Jone Uria Albizuri** (Algorta, 1990)

Matematikako lizentziaduna da. 12 urte zituela hasi zen Algortako Bertsolari Eskolan eta orduetik bertan jarraitzen du, partaide zein irakasle. 2010ean eta 2012an finalista izan da Bizkaiko Txapelketan. Bigarren parte-hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Julio Soto Ezkurdia** (Gorriti, 1987)

Nekazaritza Ingeniaritza bukatu eta Euskal Filologia ikasten ari da. Iruñeko eta Lekunberriko bertso-eskoletan trebatu da. Nafarroako txapelkun izan da 2010. eta 2011. urteetan. Bigarren aldiz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



**Maddi Sarasua Laskarai** (Itsasu, 1995)

Ikaslea da. 11 urterekin hasi zen bertso-eskolan, Uztaritzeko ikastolan. Gaur egun, Baiona lizeoko bertso-eskolan ari da. 2012ko Xilaba txapelketan laugarren egin zuen. Aurten Bertsulari Gazteen Xapelgoa irabazi du. Lehenengo aldia du Txapelketa Nagusian.



**Maialen Lujanbio Zugasti** (Hernani, 1976)

Arte Ederretako lizentziaduna da, eta sorkuntzari emana bizi da. Ikastolako bertso-eskolan hasi zen bertsoan, eta 15 urterekin ekin zion plazaz plazako ibiliari. Bertsoetik abiatutako zenbait proiektu egin ditu. 2009ko Txapelketa Nagusiko txapelduna da.



**Manex Agirre Arriolabengoa** (Aramaio, 1982)

Euskara teknikaria da. Arabako Kuadrilla arteko Bertso Txapelketan txapeldun atera zen Aramaioko taldearekin. 2011ko Arabako Txapelketan txapeldun izan zen. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Miren Amuriza Plaza** (Berriz, 1990)

Irakasle ikasketak egiten ari da. Hamabi urterekin hasi zen bertsoan, Berrizko Bertso Eskolan, eta egun, Berrizko Bertso Eskolako arduraduna da. Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen 2008an. Bigarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Nerea Elustondo Plazaola** (Legazpi, 1981)

Industria Ingeniaritzako ikasketak egin ditu. 13 urterekin hasi zen bertsoan, eta egun Legazpiko Bertso Olariak taldeko kidea da. Besteak beste, Xenpelar eta Osinalde sariak irabazi ditu. Aurtengoa bigarren aldiz du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Odei Barroso Gomila** (Urruña, 1988)

Barakaldon jaioa, hiru urte zituenetik Urruñan bizi da. Bertsolaritza eskolak ematen ditu Ipar Euskal Herriko ikastoletan eta bertso-eskoletan. 13 urterekin hasi zen bertsoan, eta Hendaiaiko Bertso Eskolan ibilia da. Bigarren aldiz du Txapelketa Nagusian.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



**Oihana Bartra Arenas** (Bilbo, 1984)

Irakasle eta itzultzaile lanetan jarduten du egun. Bitan irabazi du Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa. Santutxuko Bertso Eskolako kidea da. Hego-Uribeko txapelduna izan zen Bizkaiko azken txapelketan. Bigarrenez parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Oihane Perea Perez de Mendiola** (Gasteiz, 1977)

Arabako Bertsozale Elkarteke eragile eta irakaslea da. 12 urte zituela hasi zen Gasteizko Bertso Eskolan. Arabako egungo txapelduna da, eta hirutan izan da herrialdeko txapelduna. Bertsolari Txapelketa Nagusian hirugarren aldiz parte hartuko du.



**Onintza Enbeita Maguregi** (Muxika, 1979)

Kazetaritzan lizentziatua da, eta kazetari, gidoilari eta irakasle lanak egin ditu. Umetatik bertso giroan hezia, 2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera, eta harrezkero final guztietara sailkatu da. Hirugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Sustrai Colina Acordarrementeria** (Urruña, 1982)

Zuzenbidean lizentziatua da. Kazetaritza lanak egiten ditu. Hendaiako Bertso Eskolan ibilitakoa da, ikasle hasieran, irakasle gero. Laugarren aldiz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian. Aurreko hiruretan finalista izan da.



**Unai Agirre Goia** (Hernani, 1975)

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen egiten du lan. Langile Ikastolan hasi zen bertsoan. Hernaniko bertso-eskolako kidea da. Bitan irabazi du bertsolari gazteentzako Lizardi sariketa eta behin Orixe sariketa. Laugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Unai Iturriaga Zugaza-Artaza** (Durango, 1974)

13 urterekin hasi zen bertsoan. Garai bertsoan, Durangaldeko Bertso Eskolako kide egin zen. Bitan irabazi du Bizkaiko Txapelketa. Seigarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian. 1993an finalerako sailkatu zen, eta hala egin du ondorengo guztietan ere.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



**Xabier Silveira Etxeberria** (Lesaka, 1976)

Idazlea eta zutabegilea da. Besteak beste, Zaharrak Berri Xou eta MC Txirrita proiektuetan parte hartu du. Zazpi aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta egungo txapelduna ere bera da. Laugarren goz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea, Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## Gai-jartzaile taldea



Saioetako gaiak prestatzeaz gain, saioak aurkeztea ere talde honen ardura da. 14 kidez osatuta dago: Alaitz Rekondo, Amaiur Lujanbio, Bernar Mandaluniz, Fernando Anbustegi, Idoia Beitia, Iker Iriarte, Inaxio Usarralde, Ion Zaldua, Joana Itzaina, Leire Aurrekoetxea, Maite Berriozabal, Saroi Jauregi, Unai Elizasu eta Zuriñe Iñarritu.

## Epaile taldea



14 lagunek hartzen dute parte edizio honetako epaile taldean: Aitor Jimenez, Ekaitz Elorriaga, Eneko Bidegain, Eneritz Azkue, Gorka Intxaurbe, Iñaki Aurrekoetxea, Jon Abril, Josu Telleria, Jurgi Fuentes, Karlos Iburguren, Martin Aramendi, Mikel Beaumont, Mikel Fernandez de Arroiabe, Mikel Lersundi, Mirari Azula eta Nerea Bruño.



Bertsozale Elkarte. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## EGUTEGIA

### Kanporaketak

Irailak 29, igandea, Amasa-Villabona  
Urriak 5, larunbata, Markina-Xemein  
Urriak 12, larunbata, Hendaia  
Urriak 13, igandea, Altsasu  
Urriak 19, larunbata, Legazpi  
Urriak 26, larunbata, Oion

Behar-Zana pilotalekua  
Udal pilotalekua  
Beltzenia ezker pareta  
Burunda pilotalekua  
Urbeltz pilotalekua  
Arroyo I pilotalekua

### Finalurrekoak

Azaroak 9, larunbata, Gernika-Lumo  
Azaroak 10, igandea, Tolosa  
Azaroak 16, larunbata, Oiartzun  
Azaroak 17, igandea, Murgia  
Azaroak 23, larunbata, Elizondo  
Azaroak 24, igandea, Donostia  
Azaroak 30, larunbata, Maule-Lexarre

Jai-Alai pilotalekua  
Usabal kiroldegia  
Elorsoro kiroldegia  
Palatu kiroldegia  
Baztan pilotalekua  
Atano III pilotalekua  
Ororena ezker pareta

### Finala

Abenduak 15, igandea, Barakaldo.

BEC



Bertsozale Elkarte. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)





## FASEAK ETA SAILKAPENAK

Hiru sailkapen fasetan banatuko da txapelketa: kanporaketak, finalurrekoak eta finala.

**Kanporaketak.** 36 bertsolari izango dira lehia, guztiak herrialdeko txapelketetan sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; eta puntu gehien batzen dituzten hamabiekin osatuko da finalurrekoetara pasatuko den taldea.

**Finalurrekoak.** 24 bertsolari lehiatuko dira fase honetan: izena eman duten 2009eko sei finalista eta kanporaketako saioetatik sailkatu diren 18 bertsolariak. Bi itzuli izango ditu finalurreko faseak: lau saio izango dira lehenengoan eta hiru bigarrenean.

Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian ez dute kantatuko. Lehen itzulitik bigarrenean, saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo itzulira; puntu gehien batzen dituzten beste 14 bertsolarirekin osatuko da finalurrekoen bigarren itzulira pasatzen den taldea. Taldeak aldatu egingo dira lehen itzulitik bigarrenean.

**Finala.** Zortzi bertsolari lehiatuko dira: 2009ko txapelduna eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak jardungo dira, eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera ere arratsaldeko jardunari. Azkenean, puntu gehien batu dituzten bi bertsolarien arteko lehia egingo da: buruz burukoa. Egun osoko jardunean puntu gehien dituen bertsolaria izango da txapeldun.



Bertsotzale Elkartea. Subijana Etxea, Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)





## KANPORAKETAK

### AMASA-VILLABONA – Irailak 29 – Behar-zana pilotalekua – 17:30

Iker Zubeldia  
Odei Barroso  
Alaia Martin  
Fredri Paia  
Jon Martin  
Nerea Elustondo



### MARKINA-XEMEIN – Urriak 5 – Udal pilotalekua – 17:30

Agin Laburu  
Arkaitz Estiballes  
Beñat Ugartetxea  
Eneko Fernandez  
Jone Uria  
Onintza Enbeita



### HENDAIA – Urriak 12 – Beltzenia ezker-pareta – 17:30

Amaia Agirre  
Felix Zubia  
Iban Urdangarin  
Iñaki Apalategi  
Iñaki Zelaia  
Julio Soto



Bertsazole Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



### **ALTSASU – Urriak 13 – Burunda pilotalekua – 17:30**

Beñat Gaztelumendi  
Erika Lagoma  
Jexux Mari Irazu  
Oihane Perea  
Unai Agirre  
Xabier Silveira



### **LEGAZPI – Urriak 19 – Urbeltz pilotalekua – 17:30**

Ainhoa Agirreazaldeg  
Beñat Lizaso  
Igor Elortza  
Iñigo Mantzizidor "Mantxi"  
Jokin Uranga  
Oihana Bartra



### **OION – Urriak 26 – Arroyo I pilotalekua – 17:30**

Eneritz Zabaleta  
Etxahun Lekue  
Iratxe Ibarra  
Maddi Sarasua  
Manex Agirre  
Miren Amuriza



Bertsozale Elkarte. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## SAILKATZE SISTEMA

### FINALAURREKOEN 1. ITZULIRAKO

<b>Gernika-Lumo 2013-11-09</b>	<b>Tolosa 2013-11-10</b>	<b>Oiartzun 2013-11-16</b>	<b>Murgia 2013-11-17</b>
<b>Ametz Arzallus</b>	<b>Unai Iturriaga</b>	<b>Aitor Sarriegi</b>	<b>Aitor Mendiluze</b>
Villabonako irabazlea	Legazpiko irabazlea	<b>Jon Maia</b>	<b>Sustrai Colina</b>
Hendaiako irabazlea	Oiongo irabazlea	Markinako irabazlea	Altsasuko irabazlea
Puntuazioz 1.	Putuazioz 2.	Puntuazioz 3.	Puntuazioz 4.
Puntuazioz 8.	Puntuazioz 6.	Puntuazioz 6.	Puntuazioz 5.
Puntuazioz 9.	Puntuazioz 11.	Puntuazioz 11.	Puntuazioz 12.

### FINALAURREKOEN 2. ITZULIRAKO

<b>Elizondo 2013-11-23</b>	<b>Donostia 2013-11-24</b>	<b>Maule-Lexarre 2013-11-30</b>
Gernikako irabazlea	Oiartzungo irabazlea	Murgiako irabazlea
Puntuazioz 1.	Tolosako irabazlea	Puntuazioz 2.
Puntuazioz 4.	Puntuazioz 5.	Puntuazioz 3.
Puntuazioz 7.	Puntuazioz 6.	Puntuazioz 8.
Puntuazioz 10.	Puntuazioz 11.	Puntuazioz 9.
Puntuazioz 13.	Puntuazioz 12.	Puntuazioz 14.

### FINALERAKO

**Barakaldo – 2013/12/15 – BEC**

**Maialen Lujanbio**

+ puntuazioz zazpi bertsolari



Bertsozale Elkartea. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## LANAK

### **Kanporaketak - (15 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### **Finalurrekoak**

#### **Lehen itzulian - (15 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

#### **Bigarren itzulian - (15 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.



Bertsozale Elkartea. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## Finalean

### Goizean - (14 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Arratsaldean - (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Buruz burukoa - (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Kartzelako lana:  
Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian.  
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.



Bertsozale Elkartea. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## SARRERAK

	Sarrerak	Bazkideak	Gazteak
Kanporaketak	10€	7€	4€
Finalaurrekoak	13€	10€	5€
Finala	30€	21€	6€
<b> </b>			
Bonoak	65€	45€	25€
Finaleko bazkaria	20€		
Finaleko autobusa	12€		

1. Gazteak, 16 urte artekoak (16 barne)
2. Bonoak ez du finalerako balio

Saioetarako sarrerak aurrez internet bidez bakarrik erosi ahal izango dira [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) atarian.

Dagoeneko salgai daude kanporaketa guztietarako eta finalerako sarrerak. Finalaurrekoetarako sarrerak urriaren 14tik aurrera egongo dira salgai.

### Finalerako sarrerak, autobus eta bazkari txartela

Internetez ez ezik, herri askotan salmenta puntuak izango dira finalerako sarrera, autobus eta bazkari txartelekin. Salmenta puntuen zerrenda [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) atarian kontsultatu ahal izango da.



Bertsozale Elkartea. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



## PRENTSA BULEGOA

### Akreditazioak

Txapelketan zehar antolatzen diren ekitaldi eta saioetara sartzeko akreditazioa eskatu beharko dute hedabide eta kazetariak [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com) helbidean.

Saio bakarrerako zein txapelketako saio guztietarako akreditazioak egongo dira.

Finalerako akreditazioak abenduan banatuko dira.

### Kontaktuak

Txapelketako Komunikazio Saila  
Gontzal Agote Los Santos  
Tel: 690 857 852  
E-posta: [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)

Bertsozale Elkarteko Komunikazio Saila  
Estibalitz Esteibar Iriondo  
Tel: 605 71 74 88  
E-posta: [komunikazioa@bertsozale.com](mailto:komunikazioa@bertsozale.com)

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea  
Kale Nagusia 70, Villabona  
Tel.: 943 694 129



Bertsozale Elkartea. Mintzola Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Villabona  
T. (00) (34) 943 69 41 29 / [txapelketanagusia@bertsozale.com](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)